

# HITZA HITZ 25 de octubre de 2008

## Sí al Pueblo Vasco

- Hoy, día 25 de octubre del año 2008, la ciudadanía de los territorios vascos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa estaba convocada para participar en la Consulta aprobada por Ley en el Parlamento Vasco. Una ley de Consulta que previo recurso del Gobierno de España y su Presidente José Luis Rodríguez Zapatero, ha sido prohibida por sentencia del Tribunal Constitucional del Reino de España.
- Partiendo de Gernika, pasando por Amorebieta, Durango, Urkiola y Legutiano, nos hemos reunido en Gasteiz, electos de los diferentes territorios vascos para manifestar y proclamar ante Europa y ante el mundo nuestra existencia como Pueblo y nuestro derecho a ser consultados para decidir libre y democráticamente nuestro propio futuro.
- Con nuestra presencia conjunta y por encima de los diferentes proyectos políticos y ámbitos jurídico-territoriales que representamos, queremos dar testimonio de que somos un Pueblo con identidad propia en el conjunto de los Pueblos de Europa, depositario de un patrimonio histórico, social y cultural propio, y asentado geográficamente en siete territorios ubicados en dos Estados.

## Sí a la Paz

- Manifestamos nuestro compromiso con la defensa de todos los derechos humanos de todas las personas y reclamamos nuestro derecho a vivir en paz y libertad. La paz es nuestro principal objetivo, nuestra responsabilidad individual y colectiva, nuestro derecho como sociedad vasca.
- Compartimos la oposición a cualquier forma de violencia o de amenaza del uso de la misma para alterar la situación política o los procesos de diálogo y negociación que pudieran establecerse para la búsqueda de soluciones. ETA debe la paz a este pueblo. Exigimos que exprese de forma inequívoca su voluntad de poner fin a la violencia de una vez y para siempre. Esta decisión, constituye el primer paso para iniciar un proceso que conduzca al final dialogado y definitivo de la violencia y abra un futuro de paz, de convivencia y de reconciliación en nuestro Pueblo.
- Compartimos el criterio de desvincular el logro de la Paz y la resolución de los conflictos políticos. En consecuencia, la violencia no debe utilizarse ni para justificar ni para impedir la búsqueda de soluciones a los problemas políticos.
- Denunciamos los excesos legislativos y judiciales que han vulnerado los derechos, libertades y garantías democráticas de personas, grupos, partidos políticos, medios de comunicación y líderes políticos e institucionales.

## Sí al Diálogo Político

- Como representantes democráticos de nuestro Pueblo, manifestamos nuestra voluntad y compromiso de impulsar un proceso de diálogo sin límites y sin exclusiones, entre todos los partidos políticos, con el fin de alcanzar un Acuerdo de Normalización Política que abra vías de solución a un conflicto histórico de naturaleza política.
- La normalización política requiere inclusión frente a exclusión e igualdad de condiciones para garantizar el pluralismo, lo que significa que ningún partido debe ser objeto de amenaza y que todas las expresiones políticas de nuestra sociedad deben tener una expresión legal. La palabra, el respeto mutuo y el compromiso con las vías única y exclusivamente democráticas, son las premisas de partida para la normalización política.

## Sí al Derecho a Decidir

- Todos los Pueblos tienen derecho de libre determinación. El Pueblo Vasco tiene derecho a decidir su propio futuro, a ser consultado y a que su voluntad democráticamente expresada sea respetada.
- Hoy, en los comienzos del siglo XXI, y a la luz del principio democrático, no es posible imponer y mantener en el tiempo, estructuras políticas construidas desde la unilateralidad y el principio de veto y prohibición, desde la proclamación de la soberanía española y francesa como únicas fuentes de legitimidad.
- El principio democrático exige reconocimiento y respeto de las partes, y consecuentemente, acuerdos que reconozcan la existencia de distintos sujetos políticos y permitan la articulación de un sistema de convivencia entre los mismos.

**La imposición, la violencia y la prohibición, constituyen prácticas y decisiones sin futuro, que desgraciadamente están presentes en la vida de nuestro Pueblo. La sociedad vasca es y debe ser la principal protagonista. Los procesos de profundización y maduración democráticas, el compromiso individual y colectivo, resultan determinantes para que la mayoría social de este país sea respetada en la búsqueda de nuevos acuerdos que nos permitan vivir en paz y libertad. Tampoco existen atajos, ni soluciones mágicas. Hitza hitz, paso a paso, sin desviarnos del camino de los objetivos de la Paz y el Derecho a Decidir de nuestro Pueblo. Ésta es nuestra palabra, éste es nuestro compromiso para seguir construyendo el futuro de nuestro pueblo.**



# HITZA HITZ 2008ko urriaren 25ean

## Euskal Herriari Bai

- Gaurko eguna, 2008ko urriaren 25a, hautatua zitzaien Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa euskal lurraldeetako herritarrei, eusko Legebiltzarrak legez onartua zuen kontsultan parte hartzeko. Kontsulta legeari, Espainiako Gobernuak eta bere presidente Jose Luis Rodriguez Zapaterok helegitea aurkeztuta, Espainiako Erreinuko auzitegi Konstituzionalak epaia adostu eta debekua dio ezarri.
- Gernikatik hasi -eta Amorebieta, Durango, Urkiola eta Legutiano tarteko- hemen, Gasteizen batu gara euskal herrialde desberdinetatik etorritako hautetsiak, Europari eta munduari begira, adierazi eta aldarrikatzera izan bagarela, badela gugan Herririk, eta badela gugan, libre eta demokratikoki gure etorkizuna erabakitzera deituak eta galdetuak izateko eskubiderik.
- Gaur eta hemen, guztiok bat eginik –eta bat eginik, nor bere proiektu politikoen ordezkarietatik eta nor bere lurralde esparru juridikotik- argi nahi dugu adierazi, Europako gainontzeko herri guztien artean berezko nortasuna duen Herria dela geurea, berezko historia, gizarte-antolakuntza eta kultura ondare dituela, eta bi estatutan kokatutako zazpi lurraldetan du bere leku geografikoa.

## Bakeari Bai

- Giza eskubide guztien aldeko konpromisoa geurea dela nahi dugu adierazi; giza eskubide guztiak eta guztienganakoak. Bakean eta libertatean bizitzeko gure eskubidea nahi dugu aldarrikatu. Helburu nagusi dugu Bakea, banakako eta taldeko gure erantzukizuna; geure eskubide ere bada, euskal gizarte garen aldetik.
- Uko egiten diogu biolentzia edo mehatxu orori eta berauen erabilerari, dela egoera politikoa aldarazteko, dela –soluzio bila ibilita- eman litezkeen elkarrizketa eta negoziazio prozesuengan eragina izateko. Bakea zor dio ETAk herri honi. Eskatzen diogu ETArri adierazi beza, biolentziari behin betiko uko egiteko egiazko borondatea duela; hala exijitzen diogu; halako erabakia izango baita prozesu berria hasteko lehen urratsa, eta hortik aurrera, biolentziaren behin betiko amaiera adostuta, etorriko baitzaio geure herriari bakezko etorkizun oparoa.
- Bake-lorpena, gatazka politikoen konpontze bideetatik bereiztearen irizpidea geure egiten dugu. Hortaz diogu, biolentzia ezin erabili litekeela arazo politikoei konponbidea bilatu edo ukatu aitzakiatan.
- Salatu nahi ditugu auzitegiatiko gehiegikeriak, legediarenak, pertsona, talde, alderdi politiko, hedabide, buruzagi politiko nahiz erakundeenganakoak; berauen eskubideak, berauen askatasuna eta zor zaien berme demokratikoa urratuta ikusi duten neurrian.

## Elkarrizketa politikoari Bai

- Herriaren ordezkari politiko garen aldetik, argi nahi dugu adierazi, mugarik gabeko, bazterketarik gabeko elkarrizketa prozesuen alde, gure konpromisoa, alderdi politiko guztien artean adostasuna lortuta, izaera politikoa duen gatazka soluzio bidean jartzearen.
- Normalizazio politikoak eskatzen ditu, bazterketa baino bat-egite ahaleginak; eskatzen ditu baldintzetan berdintasuna aniztasuna bermatzeko; eskatzen ditu alderdi politikoenganako mehatxuak desagertzea eta gizarteko adierazpen politiko orok izan dezala bere legezko adierazpena. Mintzamina, elkarrenganako errespetua, bide demokratikoen aldeko konpromisoa (soilik haienganakoa) dira normalizazio politikorako jatorrizko premisak.

## Erabakitze eskubideari Bai

- Libreki erabakitzea dute herri guztiek berezko eskubide. Euskal Herriak berea du, bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea; berea du galdetua izateko eskubidea eta hala adierazitako borondatea, errespetatua izatekoa.
- Gaur, XXI. mendea hasi dugun honetan eta printzipio demokratikoaren argitan, ezin ezarri litezke ezta indarrean mantenu ere, alde bakarreko irizpideetatik eraikitako egitura politikoak, betoa eta debekua oinarri dituztela, espainiar nahiz frantziar subiranotasuna aldarrikatzea -soilik haiena- zilegi jota.
- Printzipio demokratikoak eskatzen baitu, tarteko direnen aldetik elkarrenganako errespetua, aintzat elkar hartzea; eta ondorioz, hortik aurrera, akordioak itxi, beren baitan izate politiko desberdinak egon badaudela aitortuta, elkarbizitzarako atak irekitzeko.

Inposaketa, biolentzia, eta debekua etorkizunik ez duten erabaki eta neurriak dira, eta tamalez, geure Herriari bere egunerokoan ezartzen zaizkionak. Protagonista nagusi, euskal gizartea da; hala da, eta hala behar du. Demokrazian sakontze egitasmoak; banakakoen konpromisoa nahiz taldekoena..., erabakigarri dira Herri honetako gehiengo soziala babesteko, bakea eta libertate bila, akordio berrien ahaleginetan. Bide-zidorrik ez dago, ezta soluzio magikorik ere. Hitza hitz, pausoz pauso, geure Herriarentzat bakea eta bere erabakitze eskubidea helburu, bidetik atera gabe aurrera egiteko... hauek geure hitzak, geure konpromisoa, horra!

